

# Portugaleteko kale istiluetan parte hartu izana ukatu egin dute zortzi akusatuek

Atzo hasi zen epaiketa, Barakaldon, eta fiskalak 56 urteko zigorra eskatzen du

I. Olabari / Barakaldo

Portugaleten duela hiru urte izandako istiluetan parte hartzeaz akusatutako zortzi gazteen aurkako epaiketa hasi zen atzo, eta guztiek ukatu zuten leporatzen dietena. Guztira 56 urteko kartzela zigorra eta bakoitzarentzat 500.000 eta 700.000 pezeta bitarteko isunak eskatzen ditu fiskalak.

PORTUGALETEN duela hiru urte izan ziren kale istiluetan ustez parte hartzeaz akusatuta dauden zortzi gazteek ukatu egin zuten istilu haieran parte hartu izana. Barakaldoko epaitegian ari dira epaiketa egiten, atzoz geroztik. Atzo, zortzi gazteen deklarazioez gain, bederatziz erantzainena, kale istiluetan erre zuten autobus baten gidariarena, aseguru etxeko abokatuarena, Banco Popularreko abokatuarena eta autobus konpainiako arduradunarena izan ziren.

Iker Heredia, Unai Goñi, Jon Ander Beristain, Josu Samano, Unai Bilbao eta Aitor Ojedarentzat zortzi urteko kartzela zigorra eta 700.000 pezeta isuna eskatzen ditu fiskalak. Roberto Sainz eta Alberto Cardosorentzat, aldiz, launa urteko kartzela zigorra eta 500.000 pezeta isuna.

Portugaleteko Casilda Iturriza kalearen inguruan istiluak gertatzen ari zirenean herriko beste gune batzuetan zeudela berretsi zuten Akusatuek. Batzuek istiluak zeu-



Atzo Barakaldoko epaitegiaren aurrean zortzi gazteen aurkako epaiketa salatzen egindako kontzentrazioa.

denik ere ez zekitela nabarmendu zuten, eta Josu Samano eta Unai Bilbaoren kasuan istiluak gertatu zirenean lanean ari zirela adierazi zioten epaileari.

Atxilotuek adierazi zutenenez, Portugaleteko Herriko tabernan atxilotu zituzten erantzainek. Lehenengo aldian tabernara sartu eta inor atxilotu gabe irten zirela esan zuten atxilotuek; bigarren aldian, osterat, atzo akusatuen aulkian eserita zeudena ateratu zituzten.

Zortzi akusatuetatik zazpi atxilotu zituzten erantzainek

istiluak gertatu zirenean gauean. Roberto Sainzen kausan, hasierako diligentzietan ez zuten bere izena aipatu. Gauean zehar gehitu zuten Sainzen izena erantzainek. Hala ere, abokatuak gogorarazi zuten inoiz ere ez dutela atxilotu. Roberto Sainzi gutun bidez esan zioten epaitegira deklaratzera joan behar zuela.

Kaputxadun taldeari aginduak eman zizkion ala ez galdetu zion fiskalak Alberto Cardosori. Hori ukatu eta gero, bera atxilotu zuten unean erantzainek ez ziotela esku-

bideen berri eman gaineratu zuten Cardosok. Epaietaren bigarren saioa gaur izango da, goizeko 9:30etatik aurrera.

## Kontzentrazioa epaitegiaren atarian

Barakaldoko epaitegian zortzi gazteen aurkako epaiketa hasi zen une berean, kanpoko aldean kontzentrazioa egin zuten epaituen senide eta lagunak, auzia salatzen. Kontzentrazioan parte hartu zutenek pankarta bat zeramaten esku artean, honela zioena: *Gure seme alaben eskubideen alde. No a los juicios farsa (fartsazko epaiketarik ez).*

## Kontraesanak erantzainen artean

ERTZAINEK epaitegian esan zutenenez, kaputxak kentzean ezagutu zituzten akusatuetako batzuk. Kepa Landak, ordea, erantzainek gertaeren aurretik atxilotu izanak eta goitizena ere bazezkitela azpimarratu zuen. Hori dela eta, gazteak alde aurretik kontrolpean al zeuzkaten galdetu ziren erantzainei. Batek ukatu egin

zuen hori. Besteak, ordea, onartu egin zuten gazteak jarraitzen zituztela, haien argazkiak zeuzkatekela eta herriko taberna ere zaintzen zutelak.

Ertzainek atxilotu ostean egin zituzten instrukzioen gainean ere hainbat eztabaida izan zuten epaitegian. Akusatuen abokatuak azpimarratu zuten erantzain baten ins-

trukzioa goizaldeko 1:30etan hasi eta 9:30etan amaitu zela. Txostenean hala agertzen dela adierazi eta gero, hori posible ote zen galdetu zieten erantzainei; zeren eta hala balitz tarte horretan datu gehiago sartzeko aukera izango bailitzateke. Ertzainek esan zuten hori ez zela posible, instrukzioak hasi eta amaitu berehala

egin dituztela eta akats informatiko bati egotzi zioten gertaera.

Instrukzioa egiteko orduan erantzainek sartu zituzten balorazio politikoez ere euren tartetara izan zuten epaiketako lehenengo saioan. Kale istiluetan parte hartu zutenek KASen aginduetara jokatu zutelak aipatu zuten txostenean.

## Gehiengorik gabe onartu dute Akitaniako aurrekontua

Espero bezala, Alain Roussetek 49-3 legea baliatu zuen buxeta onartarazteko

H. Gorostiaga / Baiona

JOAN den otsailaren 15ean Akitaniako Eskualdeko aurrekontua eskualde kontseiluko gehiengoak errefusatu ondoren, Alain Rousset lehendakari sozialistak gehiengorik gabe onartarazi du 49-3 lege berria erabiliaz.

Otsaileko saioan RPR, UDF, DL, FN, MN-FN eta CNPT eskuineko ordezkariek 45 bozak aurka agertu ziren, sozialista, berde eta komunisten 40 bozen parean. Astelehen gaueko azken saioan, egoera bera gertatu zen, baina oposizioak ordezko aurrekontu eta ordezko lehendakari bakar bat aurkeztu ez zutenenez, Alain Roussetek lehendakari gisa duen eskubidea baliatu eta gutiengoarekin pasarazi zuten aurrekontua.

Gisa horretan zerga zuzenak %27 egingen du gora akitaniarrendako, eta Ipar Euskal Herriko familietan 60 eta 220 libera bitarteko igoera sortuko duena etxeko zergetan. Enpresendako ere ondorioak izanen ditu, zerga profesionalaren ordainketan.

Orotara, 3,5 miliar liberrako aurrekontua izanen da aurten Akitanian. Rousseten taldearen arabera, Jacques Valade RPRko aurreko lehendakariaren kudeantza txarraren ondorio litzateke zerga igoera. Valaderen aldekoentzat, berriz, Joan den urtean Roussetek beharrezko diru eskaerak egin ez zituelako gertatu omen da.